2024ITGB0002

Ordizian, **2024ko otsailaren 1a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **1 de febrero de 2024** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Maitane Alvarez Garciandia (EH BILDU ORDIZIA)
Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Miren Alazne Sukia Galparsoro (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana Mª Sanchez Herraez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1.- 2023ko azaroaren 23a ohiko bilkurako akta onartzea.
2.- 2024ko urtarrilaren 18ko ohiko bilkurako akta onartzea.
3.- Idazkaritzako kudeaketa txostenaren berri eman.
4.- Sasietako aurrekontuaren onarpenaren berri ematea eta informazioa partekatzeko moduak sistematizatzea.
5 Agenda partekatzea (ekitaldiak, parte hartze prozesuak…).
6.- Majoriko zerbitzuen kudeaketarako lizitazioen inguruko informazioa.

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1.- Aprobación del acta de sesión ordinaria de fecha 23 de febrero de 2023.*
*2.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 18 de enero de 2024.*
*3.- Dar cuenta del informe de gestion de Secretaría.*
*4.- Dación de cuenta de la aprobación del presupuesto de Sasieta y sistematizar el procedimiento para compartir la información.*
*5.- Compartir Agenda (actos, procesos participativos…).*
*6.- Información sobre la licitación de los servicios de Majori.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| 7 Zenbait txosten eta eskaera. | *7.- Informes y solicitudes varias.* |
| 8.- Galde-eskeak. | *8.- Ruegos y preguntas.* |
| .- Hezkuntza Kontseilauren eraketa | *.- Constitución del Consejo Educativo* |

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA/ *Hora inicio*: 14:45** **AMAIERA ORDUA/*Hora fin*: 16:30**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2023ko azaroaren 23ako bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2023ko azaroaren 23ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 23 de noviembre de 2023***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 23 de noviembre de 2023***

Eztabaida /*Debate*

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan./ *no ha habido*.

Bozketa / *Votación*

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ORDIZIA ORAIN - ELKARREKIN PODEMOS 1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

***El Sr. alcalde da por aprobada la propuesta por unanimidad.***

**2.- 2024ko urtarrilaren 18ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2024ko urtarrilaren 18ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

***2.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 18 de enero de 2024***

*Propuesta*

***Aprobar el acta de la sesión ordinaria de fecha 18 de enero de 2024.***

Eztabaida / *Debate*

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan./ *no se ha producido*.

Bozketa / *Votación*

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 6 (EH BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ORDIZIA ORAIN - ELKARREKIN PODEMOS 1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

***El Sr. alcalde da por aprobada la propuesta por unanimidad.***

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Idazkaritzako kudeaketa txostenaren berri eman**

***3.- Dar cuenta del informe de gestión de Secretaría***

Idazkariak 2024ko urtarrilerako egin den kudeaketa txostena aurkezten du, eta Kontratazio eta idazkaritzako sailean egin diren espedienteen berri eman du.

*La Secretaria presenta el informe de gestión elaborado en enero del 2024, e informa de los expedientes tramitados en Secretaría, en especial los de contratación.*

**Jakinaren gainean geratzen da Tokiko Gobernu Batzordea**

***La Junta de Gobierno queda informada al respecto.***

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Sasietako aurrekontuaren onarpenaren berri ematea eta informazioa partekatzeko moduak sistematizatzea**

***4.- Dación de cuenta de la aprobación del presupuesto de Sasieta y sistematizar el procedimietno para compartir información.***

Maitane Alvarez (EH BILDU) zinegotziak adierazten du udalaz gaindiko organoetako akordioen informazioa nola partekatu aztertzen dabiltzala.

*La concejala Maitane Alvarez (EH BILDU) manifiesta que están analizando cómo compartir la información de los acuerdos de los órganos supramunicipales con los demás partidos.*

Bestalde, autokonpostarako txostena igorri da. Horretaz gain, aurrekontua ere onartu zen.

*Por otra parte, se remite informe en torno al autocompostaje. Además, da cuenta de que se aprobó el presupuesto.*

Esleipen prozesuei dagokionez, autokonposta zerbitzuan Ordiziako udalerrian 3 puntu berriztuko dira: Bilordi, Araba Kalea eta Eskarabilla. Autokonposta ondo egitea da premiazkoa, eta herritarrak kontzientziatuz oraingoan lortzeko asmoa agertzen du.

*En cuanto a los procesos de adjudicación, en el servicio de autocompostaje se renovarán 3 puntos en el municipio de Ordizia: Bilordi, Araba Kalea y Eskarabilla. Lo urgente es hacer bien el autocompostaje y muestra su intención de conseguirlo esta vez concienciando a la ciudadanía.*

**Jakinaren gainean geratzen da Tokiko Gobernu Batzordea**

***Queda informada la Junta de Gobierno Local***

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Agendak partekatzea (ekitaldiak, parte hartze prozesuak)**

***5.- Compartir Agenda (actos, procesos participativos…)***

Maitane Alvarez (EH BILDU) zinegotziak adierazten du udalak egiten dituen prozesuen agenda partekatzeko modu egokia bozeramailei helaraztea dela.

Modu horretan, adibidez agenda 20-30en ematen diren ekintzen berri izango dute:
Otsailak 6an partehartze prozesua egingo da, eta horren berri ematen du parte hartu nahi badute.

*La concejala Maitane Alvarez (EH BILDU) señala que opina que la manera óptima de compartir la agenda de procesos que lleva a cabo el ayuntamiento es mediante los portavoces.*
*De esta manera, los concejales tendrán conocimiento de las acciones que se dan. Por ejemplo en la agenda 20-30: El 6 de febrero se llevará a cabo un proceso participativo, e invita a todos a participar.*

**Tokiko Gobernu Batzordeko kideak adostasuna agertzen dute.**

***Los miembros de la Junta de Gobierno Local muestran su conformidad***

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Majoriko zerbitzuen kudeaketarako lizitazioaren inguruko informazioa.**

***6.- Información sobre la licitación de los servicios de Majori.***

Alkateak adierazten Majori Kiroldegiko zerbitzuen esleipen prozesuan arazo anitz izan direla.

*El alcalde indica que en el proceso de adjudicación de los servicios del Polideportivo Majori han acaecido muchos problemas.*

Zerbitzuan eman behar diren ordu kopuruak zehazteko, eta ordu horien

*Se identificó un problema en la emisión de información para determinar el número de*

kostuak kalkulatzeko informazioan afera sortu da.

*horas que hay que dedicar al servicio y calcular los costes de las mismas.*

Egun kontratua esleitzea dagokigu, baina sortu diren arazoak direla eta kontratuaren epealdia murriztea erabaki da (1 + 1 edo gehienez 2 urterako aterako da esleipena). Zerbitzuaren kostu eta behar den zerbitzu mota egoki zehazteko auditoritza bat egiteko asmoa dago.

*Actualmente nos corresponde adjudicar el contrato, pero debido a los problemas surgidos se ha decidido reducir el plazo del contrato (1 + 1 o como máximo 2 años). Se prevé realizar una auditoría para determinar adecuadamente el coste del servicio y el tipo de servicio necesario.*

**Jakinaren gainean geratzen da Tokiko Gobernu Batzordea**

***Queda informada la Junta de Gobierno Local***

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>7.- Zenbait txosten eta eskaera.</u>**

***<u>7.- Informes y solicitudes varias.</u>***

Ez da izan.

*No se solicitan .*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>8.- Galde-erreguak.</u>**

***<u>8.- Ruegos y preguntas.</u>***

<u>Mila Sukia</u> (Ordizia Orain Elkarrekin Podemos) zinegotziak galdetzen du Hezkuntza Kontseilauren eraketa noiz aurreikusten den.

*<u>Mila Sukia</u> (Ordizia Orain Elkarrekin Podemos) pregunta cuándo se prevé la constitución del Consejo Educativo.*

<u>Alkateak</u> adierazten otsailak 28an eragile denak batera biltzeko data ezarri dela, baina bakarkako bilerak egitea erabaki dela. Julen Mendozak adierazten du egun ez dela betetzen elementu denak prozesuari hasera emateko. Hala eta guztiz, otsailak 28 bitarte gertaerak ematea aurreikusten dela, eta orduan jakingo dela benetan prozesua hasteko baldintzak ematen diren edo ez.

*El <u>Alcalde</u> informa que el 28 de febrero se ha fijado una fecha para la reunión conjunta de todos los agentes, pero se ha acordado la celebración de reuniones individuales. Julen Mendoza señala que en la actualidad no se cumplen los elementos para dar comienzo al proceso previsto. No obstante, se prevé se produzcan moviemientos en el periodo de este mes hasta el 28 de febrero, momento en el que se conocerá si realmente se dan las condiciones para iniciar el proceso.*

Mila Sukiak adierazten du ez duela ulertzen horrenbeste denboran aurrera pausurik ez izatea. Horregatik proposatzen du Julen Mendozarekin bilera bat ezartzea prozesua nola doan azal dezan, bera baita prozesua aurrera eramaten dabilena. Bestalde hezkuntzak ere gai horretan zer esana duela adierazten du, eskuduntza berea baita, eta, ondorioz, agian prozesuan edo bileran partea hartzea eskatu beharko litzaioke

*Mila Sukia declara que no entiende que no existan avances en tanto tiempo. Por eso propone establecer una reunión con Julen Mendoza para que explique cómo va el proceso, ya que es él quien lo está gestionando. Por otro lado, señala que Educación también tiene algo que decir en esta materia, ya que la competencia es suya, por lo que quizá habría que pedirle que tomara parte en el proceso o en la reunión.*

Ana Maria Sanchez (Grupo Municipal Socialista) zinegotziak adierazten du bere alderdiak prozesuan parte hartzeko aukera lehenago izatea nahi izango luketela, ez baitute prozesuan aurrez partea hartzeko aukerarik izan.

*La concejala del Grupo Municipal Socialista, Ana María Sánchez, señala que su partido hubiese deseado se les hubiera dado la opción de participación en el proceso fuera antes, ya que no han tenido la oportunidad de participar previamente en el mismo.*

Alkateak adierazten du Juleni adieraziko diola bilera egiteko eskaera, eta ez duela inongo oztoporik ezarriko.

*El. Alcalde manifiesta que trasladará a Julen la solicitud de celebración de la reunión y que no interpondrá obstáculo alguno.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria, certifico.*

| **Sinatzaileak**<br>Firmantes | **IDAZKARIA** / *LA SECRETARIA*<br>Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / *Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:*<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAP1NNT.SjHb |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus